Zer egingo zenuke holako egoera batean?



1. Gaur balitz zure bizitzako azken eguna…

Audioa entzun aurretik, komentatu ondokoarekin puntu hau, gaian sartzen joateko.

Munduaren akaberari buruz, askotan egin dira iragarpenak. Baten bat gogoan al duzue?

Irratsaio honetan, munduan akaberari buruz hitz egiten du kazetariak tertuliakideekin. Entzun audioa eta erantzun labur galdera hauei.

https://labur.eus/MTUqA

euskadi irratia

1. Mundua akabatzeko arrazoien artean, hauetako zein ez du aipatzen kazetariak?

- ☐ Adimen artifiziala
- ☐ Klima-aldaketa
- ☐ Muturreko joera politikoak

2. XX. mendean…

- ☐ gaixotasun batek Espainiako populazioaren % 6 hil zuen.
- ☐ arrisku gehiago gertatu ziren bigarren erdian, lehenengoan baino.
- ☐ potentzien arteko gerra atomiko baten beldur bizi izan zen jendea.

3. Zer egingo luketen galdetuta, hauetako zein ez dute aipatzen herritarrek?

- ☐ Lagunekin egotea.
- ☐ Bidaia bat egitea.
- ☐ Otordu goxo bat egitea.



4. Zer iruditu zaio N. Ibarzabali herritarrek esandakoa?

- ☐ Partekatu ditu.
- ☐ Imajinazio falta ikusi die.
- ☐ Sinpleegiak iruditu zaizkio.

5. Carlos Cid tertuliakideak zer ez du esan?

- ☐ Gustuko bazkaria egingo lukeela.
- ☐ Polita izango litzatekeela momentu goxo bat pasatzea jende intelektualarekin.
- ☐ Azken eguna denez, sexuarekin lotutako zerbait izan nahiko lukeela.

Konparatu lagun batekin jarritako erantzunak.



2. Nerea Ibarzabalen gogoeta

Entzun Nerea Ibarzabal tertuliakideak dioena, eta aukeratu ondoen biltzen duen laburpena.

Galderei egoki erantzuteko, ondo etorriko zaizu galdera-erantzunak aurretik irakurtzea.

a) Nereak pentsatzen du gizakiok gure zilborrari begira bizi garela, eta hobe genukeela beste izakienganako enpatia areagotzea.
b) Nereak uste du ez garela mundu honetako protagonista nagusiak; izan ere, badaude izaki batzuk gu baino prestatuago daudenak bizirauteko.
c) Nerea lasaitzen du pentsatzeak gu mundu honetatik desagertzen bagara ere, bizitzak jarraituko duela beste izaki batzuetan.

https://labur.eus/EgMng

3. Egoera hipotetikoa, aditz hipotetikoak

Munduaren akaberaz ari garenez, egoera hipotetiko bat ari gara planteatzen; horregatik, aditzak ere denbora hipotetikoan erabili ohi ditugu.

Segidan daukazu aztertzen ari garen audioan herritarrek eta kolaboratzaileak esandakoaren zati bat, baina baldintzazko aditz hipotetikoak falta dira. Osatuko al duzu testua?.

(Nahi baduzu, begiratu ondoko taulei, edo, sakonago, egin klik hemen)

Nor	
BALDINTZA	ONDORIOA litekeena
Banintz Balitz Bagina Bazina Bazinete Balira	Nintzateke Litzateke Ginateke Zinateke Zinatekete Lirateke

Zer (3. pertsona) **- Nork**			
BALDINTZA		ONDORIOA (litekeena)	
singularra	plurala	singularra	plurala
Banu Balu Bagenu Bazenu Bazenute Balute	Banitu Balitu Bagenitu Bazenitu Bazenituzte Balituzte	Nuke Luke Genuke Zenuke Zenukete Lukete	Nituzke Lituzke Genituzke Zenituzke Zenituzkete Lituzkete

HIRITARRA 1. Nire azken egunean ere, egunero bezala, etxeko lanak egiten, paseatzen eta lagunekin elkartzen igaro nahiko ..... **(1)**

HIRITARRA 2. Parisera bidaia.

HIRITARRA 3. Nire azken eguna balitz, Santa Agedako koplak (abestu) ..... **(2)** edo, behintzat, abestu egingo nuke.

HIRITARRA 4. Gehien maite ditudanekin mendi-buelta bat (eman) ..... **(3)**

MANU ETXEZORTU. Xabier, zer pentsatu duzu gaur munduaren akaberaz hitz egin behar dugula jakin duzunean?

XABIER AMURIZA IRRATIKO KOLABORATZAILEA. Hori benetan (etorri) ..... **(4)**, orduan benetan pentsatzen hasi beharko nuke eta, seguruenik, ba janean edo… Egun batean ezin da gauza askorik egin; orduan, ez ..... **(5)** asko (mugitu) ..... **(6)** Orduan, ba, pixka bat debekatuta, edo ez gomendatuta dauzkadan jateko batzuk ba jateko (baliatu) ..... **(7)**: adibidez, ba Cola Cao jan eder bat (egin) ..... **(8)**. Eta beste gauza batzuk ba, ez dakit, urdaia ere aspaldian erdi debekatzen didate eta (jan) ..... **(9)**

MANU ETXEZORTU. Carlosek zer (egin) ..... **(10)**, (esan) ..... **(11)**, Carlos, gaurkoa duzu zure bizitzako azken eguna?

CARLOS CID IRRATIKO KOLABORATZAILEA. Buruan izan ditudanak izan dira: zer hartu bazkaltzeko? Eta Gernikako piperrak, zapoa, sagardoa –bi botila– eta postrerako pantxineta hori ja ziur. Eta beste bi jarduera intelektual. Bat sexua, noski, sexua: jope, azken momentuetan normalean egiten ez dena egingo dugu, ezta; eta hondartzan bainu bat, hori ere polita (izan) ..... **(12)**

4. Baldintza-kateak

Aditz hipotetikoen formak praktikatzeko, baldintza-kateak osatuko ditugu, talde txikian jarrita. Ikaskide batek baldintza eta ondorioa osatuko ditu; hurrengoak ondorio hori baldintza bihurtuko du eta ondorioa asmatuko; horrela baldintza-ondorio kateak osatu behar dituzue.

Erreparatu adibideari.

Adibidea: Ospetsua banintz...
A: Ospetsua banitz, ez litzaidake lanik faltako.
B: Lanik faltako ez balitzait, lasaiago biziko nintzateke.
C: Lasaiago biziko banintz, ez nintzateke estresatuko.
D: Estresatuko ez banintz…

Hemen dituzue beste 3 abiapuntu:
- Dirua izango banu…
- Langabeziarik ez balego...
- 3. mundu-gerra piztuko balitz…

5. Sarrerako testua osatzen

Audioaren hasieran kazetariak esandako testua daukazu segidan. Bertatik, **lexikoarekin** eta **hizkuntza-formekin** lotutako hutsuneak jarri dizkizugu, zeuk osa ditzazun.

Gaur munduko akaberaz edo apokalipsiari buruz hitz egin nahi dugu. Gaia zertara datorren galdetuko diozue zeuen buruari. Bueno, **(1)** denetik beti izan du beldur hori, **(2)**, mundua bukatu egingo dela, eta historian zehar asko izan dira akabera **(3)** dutenak, antzinako herrialdeak, baina, bistan denez, ez dute asmatu.

(4) da nazioarteko zientzialari-talde batek sekula baino gertuago ikusten duela aukera hori. Ez dute datarik eman, jakina, baina horrela gertatzeko **(5)** ugari ikusten dute. Klima-aldaketa da faktoreetako bat; alegia, munduko tenperatura 2 gradu igotzen bada, muturreko eguraldi-fenomenoak gerta litezke, eta gizakiei ezinezkoa gertatuko zaie fenomeno horietara egokitzea, gure **(6)** arriskuan jarriz.

Baina beste bi faktore ere badaude munduaren akabera **(7)**: adimen artifiziala eta bioteknologia. Teorian gure mesederako asmatu ziren, baina kontrolik gabe eta intentzio txarrez erabiltzen badira oso arriskutsu **(8).**

Mundua edo bizitza bukatzeko arriskuen inguruan, historian zer **(9)** ditugu? Ba alde batetik sobietar eta estatubatuarren **(10)** Gerra Hotza deiturikoa; ez zuten batzuek besteen kontrako eraso atomikorik egin, baina **(11)** horren menpe bizi izan zen jendea aurreko mendeko bigarren erdi osoan. Eta horren aurretik, XX. mende-hasieran, gripe espainiarra **(12)** mundu osoko biztanleriaren % 6 akabatu zuen.

Gaur balitz edo bihar balitz zure bizitzako azken eguna, zer egingo **(13)** zenuke? Hauexek erantzunak.

1 gizakiz gizaki gizaki-gizakia gizakia gizaki	2 dirudienez beraz alegia	3 igarri iragarri ezarri	4 Kontua Bistakoa Gakoa	5 kezka arrisku proposamen
6 biziraupena duintasuna helburua	7 ekarriko lukete ekar dezaketela ekar dezaketenak	8 gerta lezakete gerta litezke gerta litzateke	9 aurrezpen aurrekari ondorio	10 artean arteko artetik
11 ilusio luzapen beldur	12 deituz deiturikoak izenez	13 al omen ote		

Konparatu lagun batekin jarri dituzuen erantzunak.

6. Nik zera egingo nuke…

Orain gu ere egoera horretan jarriko gara; alegia, mundua egun batetik bestera bukatu egingo dela. Komentatu ondoko galdera hauek talde txikitan.

- Munduaren akabera nola irudikatzen duzue? Gertu ala urrun ikusten duzue?
- Norekin pasatu nahiko zenukete?
- Inora joango zinatekete?
- Otordu bereziren bat egingo zenukete?

- Nik uste dut munduaren akabera mende honetan gerta litekeela.
- Zergatik diozu hori?

Bukatzeko, komentatu denen aurrean zuen taldean esandako interesgarriena edo bitxiena.



ERANTZUNAK

1. Gaur balitz zure bizitzako azken eguna…

1-c 2-c 3-b 4-a 5-b

2. Nerea Ibarzabalen gogoeta

Nerea lasaitzen du pentsatzeak gu mundu honetatik desagertzen bagara ere, bizitzak jarraituko duela beste izaki batzuetan.

3. Egoera hipotetikoa, aditz hipotetikoak

1 nuke	2 abestuko nituzke	3 emango nuke	4 baletor/ etorriko balitz	5 nintzateke
6 mugituko	7 baliatuko nuke	8 egingo nuke	9 jango nuke	10 egingo luke
11 esango balizute	12 (izango) litzateke			

5. Sarrerako testua osatzen

1 gizakia gizaki	2 alegia	3 iragarri	4 Kontua	5 arrisku
6 biziraupena	7 ekar dezaketenak	8 gerta litezke	9 aurrekari	10 arteko
11 beldur	12 deiturikoak	13 ote		

TRANSKRIPZIOAK

2. Nerea Ibarzabalen gogoeta

NEREA IBARZABAL TERTULIAKIDEA. Baina, agian, esaten dugu munduaren akabera gizakiaren akabera esan nahi dugunean, ez? Iruditzen zait munduko bizitza dena amaitu aurretik gauza asko gertatu behar direla eta, beharbada, beti geratuko dela azkeneko sustrai bat ere; hau da, gizakia desagertuko dela, baina mundua bera ez dela amaituko.

Eta ni lasaitzen nau aukera horrek, asko. Ez zaizue gertatzen zaudetenean eguneroko arazoetan, ez dakit oso gizakien arazo txatxuetan, eta batzuetan ez zaituzte lasaitzen pentsatzeak ez dakigula non gauden. Amaieran ez dakigula non gauden flotatzen eta berdin diola gaur zu berandu iritsi izanak ez dakit nora…; bizitzaren amaieran berdin-berdin diola horrek. Orduan, bueno, ez dakit lasaitzen nau ni ideia horrek: gu hilko garela, baina jarraituko duela honek nolabait, eta egongo dela txori bat bizirik, edo alga bat edo arrain bat nonbaiten bizirik, berdin diona guztiz pertsonaren existentziak.

MANU ETXEZORTU KAZETARIA. Dena erlatibizatu behar dugula, ez?

NEREA IBARZABAL. Bai, pixka bat gehixeago, agian, bai. Uste dut oso zilborrean bizi garela gu ere, eta oso konkistatzaile gure inguru guztiarena. Orduan, agian, merezi dugu pixka bat…

MANU ETXEZORTU. Bai.

1) Gaur balitz zure bizitzako azken eguna…

MANU ETXEZORTU KAZETARIA. Gaur munduko akaberaz edo apokalipsiari buruz hitz egin nahi dugu. Gaia zertara datorren galdetuko diozue zeuen buruari. Bueno, gizakia gizaki denetik beti izan du beldur hori, alegia, mundua bukatu egingo dela, eta historian zehar asko izan dira akabera iragarri dutenak, antzinako herrialdeak, baina, bistan denez, ez dute asmatu.

Kontua da nazioarteko zientzialari-talde batek sekula baino gertuago ikusten duela aukera hori. Ez dute datarik eman, jakina, baina horrela gertatzeko arrisku ugari ikusten dute. Klima-aldaketa da faktoreetako bat; alegia, munduko tenperatura 2 gradu igotzen bada, muturreko eguraldi-fenomenoak gerta litezke, eta gizakiei ezinezkoa gertatuko zaie fenomeno horietara egokitzea, gure biziraupena arriskuan jarriz.

Baina beste bi faktore ere badaude munduaren akabera ekar dezaketenak: adimen artifiziala eta bioteknologia. Teorian gure mesederako asmatu ziren, baina kontrolik gabe eta intentzio txarrez erabiltzen badira oso arriskutsu gerta litezke.

Mundua edo bizitza bukatzeko arriskuen inguruan, historian zer aurrekari ditugu? Ba alde batetik sobietar eta estatubatuarren arteko Gerra Hotza deiturikoa; ez zuten batzuek besteen kontrako eraso atomikorik egin, baina beldur horren menpe bizi izan zen jendea aurreko mendeko bigarren erdi osoan. Eta horren aurretik, XX. mende-hasieran, gripe espainiarra deiturikoak mundu osoko biztanleriaren % 6 akabatu zuen.

Gaur balitz edo bihar balitz zure bizitzako azken eguna, zer egingo ote zenuke? Hauexek erantzunak:

HIRITARRA 1. Nire azken egunean ere, egunero bezala, etxeko lanak egiten, paseatzen eta lagunekin elkartzen igarotzea nahiko nuke.

HIRITARRA 2. Parisera bidaia.

HIRITARRA 3. Nire azken eguna balitz, Santa Agedako koplak abestuko nituzke edo, behintzat, abestu egingo nuke.

HIRITARRA 4. Gehien maite ditudanekin mendi-buelta bat emango nuke.

MANU ETXEZORTU. Zer iruditu, Nerea, jendeak esan diguna?, zer egingo luketen beraien, zera, bizitzako azken eguna balitz?

NEREA IBARZABAL IRRATIKO KOLABORATZAILEA. Gustatu zaizkit. Askok… Nik berdina egingo nuke, kantatuko nukeela nik ere. Eta iruditzen zait, agian, amets handiak denok deskartatzen ditugula, ez. Badirudi bizitzan zehar amets handiak dauzkagula, edo amets handiak izatera kondenatzen gaituztela, baina gero benetako momentuetan mendi-buelta bat eta familiarekin otordu bat aski dela. Orduan, ba, bueno, nik ere konpartitzen dut sentsazio hori, bai.

MANU ETXEZORTU. Xabier, zer pentsatu duzu gaur munduaren akaberaz hitz egin behar dugula jakin duzunean?, zer pentsatu duzu?, zer gogoeta etorri zaizu?

XABIER AMURIZA IRRATIKO KOLABORATZAILEA. Hori benetan baletor, orduan benetan pentsatzen hasi beharko nuke eta, seguruenik, ba janean edo… Egun batean ezin da gauza askorik egin; orduan, ez nintzateke asko mugituko. Orduan, ba, pixka bat debekatuta, edo ez gomendatuta dauzkadan jateko batzuk ba jateko baliatuko nuke: adibidez, ba Cola Cao jan eder bat egingo nuke. Eta beste gauza batzuk ba, ez dakit, urdaia ere aspaldian erdi debekatzen didate eta jango nuke. Eta horrelakoren bat egin eta gero, irten etxe ingurura eta txoriekin hitz egin eta abar. Eta, bueno, badoa mundua eta agur eta pozik; bestela ere joan behar dut, eta denok batera joatea hobe izango da.

MANU ETXEZORTU. Carlosek zer egingo luke, esango balizute, Carlos, gaurkoa duzu zure bizitzako azken eguna?

CARLOS CID IRRATIKO KOLABORATZAILEA. Buruan izan ditudanak izan dira: zer hartu bazkaltzeko? Eta Gernikako piperrak, zapoa, sagardoa –bi botila– eta postrerako pantxineta hori ja ziur. Eta beste bi jarduera intelektual. Bat sexua, noski, sexua: jope, azken momentuetan normalean egiten ez dena egingo dugu, ezta; eta hondartzan bainu bat, hori ere polita izango litzateke.

XABIER AMURIZA. Eta bertan ito, ezta?

KARLOS CID. Eta bertan ito, bai.

XABIER AMURIZA. Ondo dago.